Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2023ko urtarrilaren 25a, asteazkena — 16 — Miércoles, a 25 de enero de 2023

BESTE BATZUK — 7 — OTROS

## KUTXA FUNDAZIOA

*45. Irun Hiriko Kutxa Literatura Sariak. Oinarriak*

Literaturaren sorkuntza eta hedapena sustatzeko xedez, Kutxa Fundazioak 2023. urteari dagozkion 45. Irun Hiriko Kutxa Literatura Sarietarako deialdia egin du, honako oinarri hauen arabera:

01.

Lehiaketa zabalik dago Espainian bizi diren euskarazko nahiz gaztelaniazko idazleentzat, edozein dela ere horien nazionalitatea. Lan originalak eta lehendik partzialki edo osorik argitaratu gabeak eta inongo literatura-lehiaketatan saririk eskuratu gabeak aurkeztu ahal izango dira, eta baldintza horiek indarrean egongo dira epaia eman arte.

Aurkeztutako lanak ezin izango dira beste literatura-lehiaketa batera aurkeztu onarpen-data amaitzen denetik Sariak erabakitzen diren egunera arte. Lehiaketan parte hartzen dutenek sarietara aurkeztutako lanaren egiletza bermatuko dute, baita lanaren gaineko eskubideen titular bakarrak direla, ez dela beste lan baten kopia edo aldaketa, eta ez dela hildako egile baten lana ere.

Aurkeztutako lanaren egileak Kutxa Fundazioa libre utziko du lana aurkezterakoan egindako adierazpen horien zehaztasunik edo egiazkotasunik ezaren ondorioz izan daitezkeen kalteez eta/edo galerez; adierazpen horiek indarrean egon beharko dute saria eman ahal izateko.

Irun Hiriko Kutxa Literatura Sari hauetara ezin izango dira aurkeztu, inongo modalitateetara, lehiaketaren ekitaldi honetan epaimahaikide edo aurre-epaimahaikide direnak, ezta orain deitu denaren aurreko edizioan modalitate berean irabazle izandako idazleak ere.

Egile bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du lehiaketaren kategoria bakoitzeko.

02.

Lehiaketan inskribatzeko formulario digitala aurkeztu beharko da, eta lanak modu telematikoan eta inprimatuta aurkeztu beharko dira. Kutxa Fundazioaren web-orrian txertatutako estekaren bidez aurkeztu beharko da lana telematikoki: www.kutxakultur.eus (Programak > Literatura > Irun Hiriko Kutxa Literatura Sariak). Horrez gain, aurkeztutako obraren kopia inprimatu eta koadernatu bat (hau ere anonimoa, PDF formatuan bidalitakoa bezalaxe –ikus azpian–) helarazi beharko da posta bidez honako helbide honetara: «Irun Hiriko Kutxa Literatura Sariak, 2023. (zehaztu) modalitatea», Gureak Marketing. Gurutzegi Bidea 14-18. 9. pabiloia. Belartza. 20018 Donostia (Gipuzkoa).

03.

Lehiaketan inskripzio bakarra egingo da (baita kategoria batean baino gehiagotan lanak aurkezten badira ere). Izena emateko formularioan honako datu pertsonal, agiri eta onarpen hauek sartuko dira:

1. Egilearen izena, abizenak, posta helbidea, helbide elektronikoa eta telefonoa.

## KUTXA FUNDAZIOA

*45 Premios Literarios Kutxa Ciudad de Irun. Bases*

Al objeto de fomentar la creación y difusión literarias, Kutxa Fundazioa convoca los 45 Premios Literarios Kutxa Ciudad de Irun, correspondientes al año 2023, de acuerdo con las siguientes bases:

01.

El certamen está abierto a la participación de autoras y autores en lenguas vasca o castellana, independientemente de su nacionalidad, residentes en España, quienes habrán de concurrir con obras rigurosamente originales e inéditas, parcialmente o en su totalidad, no premiadas en otro concurso literario de cualquier naturaleza o lugar, condiciones que deberán mantener hasta el momento del fallo.

Las obras presentadas, no podrán presentarse a otros certámenes literarios desde el día en que acaba el plazo de admisión hasta el día del fallo de los Premios. Las personas participantes garantizarán la autoría de la obra presentada al Premio, su exclusiva titularidad sobre los derechos de la misma, así como que no es copia ni modificación de ninguna otra ajena, y que no corresponde a una persona fallecida.

La persona autora de la obra presentada se obliga a mantener indemne a Kutxa Fundazioa por cuantos daños y/o perjuicios pudiera ésta sufrir como consecuencia de la inexactitud o falta de veracidad de cualquiera de las manifestaciones indicadas anteriormente en el momento de presentación de la obra y que deberán mantenerse en vigor para la concesión del premio.

A estos Premios Literarios Kutxa Ciudad de Irun, no podrán presentarse quienes sean parte del Jurado o Prejurados en la edición objeto de concurso para cualquiera de las modalidades, ni, en la misma modalidad, aquellas personas que hayan resultado ganadoras en la edición previa a la que se convoca.

Cada persona autora podrá presentar a concurso una sola obra por categoría.

02.

La inscripción en el Certamen se hará a través de un formulario digital, e implicará la presentación de los trabajos de forma telemática e impresa. De forma telemática a través del enlace provisto en la página web de Kutxa Fundazioa: www.kutxakultur.eus (Programas > Literatura > Premios Literarios Kutxa Ciudad de Irun). Además, una copia impresa y encuadernada (también anónima, igual a la enviada en PDF –ver debajo– de la obra presentada será remitida por correo postal a la siguiente dirección: «Premios Literarios Kutxa Ciudad de Irun 2023. modalidad de (indicar)» Gureak Marketing. Gurutzegi Bidea 14-18. Pabellón 9. Belartza. 20018 San Sebastián (Gipuzkoa).

03.

La inscripción en el Certamen se hará una única vez. En el formulario de inscripción se incluirán los siguientes datos personales, documentos y aceptaciones:

1. Nombre, apellidos, dirección, e-mail y teléfono de la persona autora.

EK\CV GAO-I-2023-00130

2. Egilearen Nortasun Agiri Nazionalaren edo Atzerritarren Identifikazio Agiriaren argazkia edo eskaneatua, bi aldeetatik.

3. Sari honen oinarrien eta baldintzen onarpena.

4. Datu pertsonalen babesari buruzko klausularen onarpena.

5. Kutxaren literatura-lehiaketei, kultura-jarduerei edo, oro-korrean, Kutxa Fundazioak antolatutako jarduerei buruzko informazioa jaso ahal izateko aukera eskainiko da, eta borondatezkoa izango da.

Izena ematen dutenean, parte-hartzaileek ezkutuko kode bat jasoko dute erregistratu duten helbide elektronikoan. Kode hori izango da lana lehiaketara bigarren formulario baten bidez modu anonimoan aurkezteko modua; formulariorako esteka posta elektroniko horretan bertan emango zaio parte-hartzaileari. Aurrekoa gorabehera, inskripzioa ez da formalizatutzat joko, harik eta lana modu telematikoan eta paperean bidaltzen den arte eta parte-hartzaileak berrespen-mezua jasotzen duen arte.

04.

Lehiaketara aurkeztutako lana bidaltzeko formularioan, honako datu eta agiri hauek sartuko dira:

1. Aurreko atalean aipatutako ezkutuko kode besterenezina.

2. Lana lehiaketaren zein modalitatera aurkeztuko den.

3. Lehiaketara aurkeztutako lanaren izenburua.

4. Lehiaketara aurkeztutako lana PDF formatuan erantsiko da, eta izenburuaz bakarrik identifikatuko da. Ez du, beraz, egilea nor den identifikatu ahal izateko xehetasunik izan behar (ezizenik gabe). Lanak DIN A4 (210 x 297 mm) formatuko orrietan eta lerroarte bikoitzean idatziko dira, eta Arial letra mota edo antzekoa eta 12 letra-tamaina erabiliko dira.

5. Egileak mezu elektroniko bat jasoko du, lehiaketara aurkeztutako obra onartu dela baieztatzeko, edo, hala badagokio, haren obrak Oinarrien zer puntu ez duen betetzen azaltzeko –deialdia itxi arte zuzentzeko epea izango du–.Mezua iritsi aurretik egun batzuk edo aste batzuk igaro daitezke, antolatzaileek egiaztatu behar baitute aurkeztutako lanek oinarriak betetzen dituztela.

6. Kategoria batera baino gehiagotara lanak aurkeztuz gero, lanaren beste bidalketa-formulario bat bete beharko da, atal honetan adierazitako urratsak jarraituz.

7. Aurkeztutako lanak lehiaketan behin betiko onartutzat joko dira, berrespeneko mezu elektronikoa bidalitakoan, eta hori kopia inprimatua jaso ondoren gertatuko da. Kopia inprimatuek zigilatuta egon behar dute lanak onartzeko epea amaitu aurretik. Antolakundea ez da helmugara iristen ez diren lan galduen erantzule izango.

05.

Lanak onartzeko epea 2023ko martxoaren 13an, 24:00etan (Euskadiko ordua) amaituko da. Une horretatik aurrera, online izena emateko epea ezgaituta geratuko da.

06.

Kutxa Fundazioak izendatuko ditu espezialitate desberdinetarako epaimahaiak, eta epaimahaiko lehendakariaren botoa erabakitzailea izango da berdinketa gertatuz gero. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da. Literatura Sari hauetan parte hartze hutsak oinarriak onartzen direla adieraziko du. Oinarrietan aurreikusi gabeko gorabehera guztiak lehiaketaren onerako ebatziko dituzte antolatzaileek. Epaimahaiak askatasuna izango du oinarriak argitaratzeko unean aurreikusi ez diren edo kontuan hartu ez diren alderdiak interpretatzeko.

2. Escaneo o Fotografía del Documento Nacional de Identidad o Tarjeta de Identidad de Extranjero, por ambas caras.

3. Aceptación de las Bases y condiciones de este Premio.

4. Aceptación de la cláusula de protección de datos personales.

5. Se ofrecerá la posibilidad, con carácter voluntario, de que los concursantes puedan recibir información relativa al desarrollo de los certámenes literarios de Kutxa, del ámbito cultural, o en general de las actividades organizadas por Kutxa Fundazioa.

Una vez realizada la inscripción, las personas participantes recibirán un código secreto en la dirección de correo electrónico que hayan registrado. Dicho código servirá para presentar la obra a concurso de forma anónima en un segundo formulario cuyo enlace se les facilitará en el mismo correo electrónico. No obstante lo anterior la inscripción no se entenderá formalizada hasta que se remita la obra de forma telemática y en papel y se reciba por la persona participante el mail de confirmación en este sentido.

04.

En el formulario de envío de la obra presentada se incluirán los siguientes datos y documentos:

1. El código secreto e intransferible mencionado en el apartado anterior.

2. La modalidad a la que se presenta la obra a concurso.

3. El título de la obra presentada a concurso.

4. Se adjuntará la obra presentada a concurso en formato PDF, identificada solamente con su título. Carecerá por tanto de detalles que puedan identificar a la persona autora (sin pseudónimos). Las obras habrán de presentarse en hojas de formato DIN A4 (210 x 297 mm) a doble espacio de interlineado, con letra tipo Arial o similar y tamaño de fuente 12.

5. La persona autora recibirá un correo electrónico en el que se confirmará la aceptación de la obra presentada a concurso, o en su caso la explicación de los puntos en los que su obra incumple la bases, teniendo de plazo hasta el cierre de la convocatoria para subsanarlo. Dicho correo puede demorarse algunos días e incluso semanas, pues la organización ha de verificar que los trabajos presentados cumplen las bases.

6. Si se presenta una obra diferente a más de una categoría, habrá de rellenarse otro formulario de envío de la obra, siguiendo los pasos enumerados en este apartado.

7. Las obras presentadas serán admitidas a concurso con carácter definitivo una vez enviado el correo de confirmación, lo que se hará una vez de haber recibido una copia impresa de la misma. Las copias impresas deberán estar selladas antes de la finalización del plazo de admisión de las obras. La organización no se hace responsable de obras extraviadas que no lleguen a su destino.

05.

El plazo de admisión de obras se cerrará el 13 de marzo de 2023 a las 24:00 horas (hora en Euskadi). A partir de ese momento el portal de inscripción online quedará inhabilitado.

06.

Kutxa Fundazioa designará los Jurados para las distintas especialidades, teniendo el voto de la Presidencia del Jurado carácter dirimente en caso de empate. El fallo del Jurado será inapelable. El hecho de participar en estos Premios Literarios implica la aceptación de sus bases. Todas las incidencias no previstas serán resueltas por la organización en beneficio del concurso. El jurado podrá interpretar libremente los aspectos de las bases que no se hayan previsto o tenido en cuenta en el momento de publicación de las mismas.

EK\CV GAO-I-2023-00130

07.

Lan irabazleak eta pertsona saridunak Irunen jakinaraziko dira 2023ko irailaren 9an, 13:00etan. Sariak Irunen emango dira 2023ko azaroaren 24an.

Epaimahaiak lehiaketara aurkeztutako obren artean komenigarritzat jotzen dituen aipamen bereziak eman ahalko ditu. Aipamen horrek, hala ere, ez du konpentsazio ekonomikorik edo saririk ekarriko.

08.

Sarietako edozein gera daiteke hutsik, baldin eta, epaimahaiaren iritziz, aurkeztutako lanek behar besteko kalitaterik ez badute. Epaimahaiak ez du aintzat hartuko 2023ko Irun Hiriko Kutxa Literatura Sarietarako lanak onartzeko epea amaitu eta erabakia ematen den egunera bitartean beste lehiaketa batean saritu den obrarik, betiere horren berri jakinez gero.

09.

Ildo horretatik, egilearen betebeharra izango da lana sariketara aurkeztu zen egunetik 7. puntuan ezarritako epera bitartean (lan sarituen aldarrikapen eguna arte alegia) lanari dagokionez izandako aldaketen berri ematea. Horretarako, helbide honetara zuzendu beharko du: literatursariak@kutxa.eus.

10.

Era berean, epaimahaiak hautatutako lan bakar bat ere ez da behin betiko irabazletzat joko harik eta oinarri hauetako 1. eta 8. puntuetan adierazitako baldintza guztiak betetzen dituela egiaztatu arte.

11.

Kutxa Fundazioak ez du saritutako lanak ekonomikoki ustiatzeko asmorik, eta egileek haien jabetza gordeko dute, baita jabetza intelektualaren gaineko eskubide moral eta ondare-eduki osoa ere.

Hala ere, saritutako lanen egileek baimena ematen diote Kutxa Fundazioari, bere kabuz edo hirugarrenen bidez, lan horien ale kopuru mugatua argitaratzeko, irabazi asmorik gabe, gaur egungo edozein euskarritan eta irabazleak aldarrikatzen direnetik hasi eta gehienez ere 6 hilabeteko epean. Saritutako lanen egileek onartzen dute horien hedapenean parte hartzea.

Saritutako lanen azterketa ortotipografikoa egingo da, eta dagokion epaimahaiaren eta/edo argitaletxearen gomendioak jarraituz argitaratu ahal izango dira, baina beti izango dute egilearen oniritzia.

12.

Saritu gabeko lanak eta lehiakideen datu pertsonalak ezabatu egingo dira 2023ko Irun Hiriko Kutxa Literatura Sariak banatzeko ekitaldiaren hurrengo astean. Izena emateko formularioan hala eskatu duten lehiakideen datu pertsonalak soilik erregistratuko dira (izena, bizilekua eta posta elektronikoaren helbidea), haiek berariaz adierazitako informazioa bidal dakien.

13.

Sariei eta oinarriei buruzko kontsultak literatursariak@kutxa.eus. helbidearen bidez egin daitezke.

14.

Emandako datu pertsonalak Literatura Lehiaketaren esparruan erabiliko dira, bertan lehiakide gisa jardun dadin.

07.

La determinación de las obras ganadoras y la proclamación de las personas ganadoras, tendrán lugar en Irun, el día 9 de septiembre del año 2023, a las 13:00 horas. La entrega de los premios tendrá lugar el día 24 de noviembre de 2023 en Irun.

El jurado podrá conceder cuantas menciones especiales estime convenientes a las las obras presentadas a concurso. Sin embargo, esta mención no conllevará compensación económica o premio alguno.

08.

Cualquiera de los premios podrá ser declarado desierto si los trabajos presentados no tuvieran, a juicio del Jurado, el nivel de calidad requerido. No será considerada por el Jurado correspondiente ninguna obra de la que se tenga noticia que haya sido premiada en otro Concurso en el periodo comprendido entre el término del plazo de admisión de las obras y la fecha del fallo de los Premios Literarios Kutxa Ciudad de Irun 2023.

09.

En este sentido, será obligación de la autora o autor comunicar por correo electrónico cualquier variación surgida respecto a la obra presentada desde la presentación hasta el plazo de determinación de las obras ganadoras fijado en el punto 7, dirigiéndose a: literatursariak@kutxa.eus.

10.

Asimismo, ninguna obra seleccionada por el Jurado podrá ser considerada ganadora con carácter definitivo hasta no haberse comprobado el cumplimiento de todas las condiciones requeridas para ello y expresadas en los puntos 1 y 8 de estas bases.

11.

Kutxa Fundazioa no está interesada en la explotación económica de las obras premiadas, conservando las personas autoras la propiedad de las mismas y la totalidad de los derechos morales y de contenido patrimonial de la propiedad intelectual que recaigan sobre éstas.

No obstante lo anterior, las personas premiadas autorizan a Kutxa Fundazioa, por si misma o por medio de terceros, a divulgar dichas obras mediante la publicación, sin finalidad lucrativa, en cualquier soporte actualmente existente y en un período máximo de 6 meses a contar desde el momento de la proclamación de las personas ganadoras, de un número limitado de ejemplares de las mismas. Las y los autores de las obras premiadas aceptan participar en la difusión de las mismas.

Las obras premiadas se someterán a una revisión ortotipográfica, y podrán ser editadas siguiendo las recomendaciones del Jurado correspondiente y/o la empresa editora, que contarán siempre con el visto bueno de la persona autora.

12.

Las obras no premiadas, así como los datos personales de concursantes, serán eliminadas la semana después del acto de entrega de los Premios Literarios Kutxa Ciudad de Irun 2023. Tan sólo quedarán registrados los datos personales (nombre, lugar de residencia y dirección de correo electrónico) de aquellas personas concursantes que así lo hayan solicitado en el formulario de inscripción, para el envío de información expresamente indicada por ellas.

13.

Podrán formularse posibles consultas relativas a los Premios y a las bases a través de la dirección: literatursariak@kutxa.eus.

14.

Los datos de carácter personal proporcionados serán utilizados dentro del ámbito del Concurso Literario para ejercer de

EK\CV GAO-I-2023-00130

Lanak hirugarrenei bidali ahal izango zaizkie lehiaketaren garapenarekin lotutako logistika-zerbitzuak egite aldera.

15.

MODALITATEAK ETA SARIAK

*Poesia euskaraz.*

Gutxienez 800 bertsoko luzerako lanak, errimaren, neurrien eta gaiaren aldetik askatasun osoa dutenak.

— Saria: liburua argitaratzea, garaikurra eta 15.000 euro.

*Eleberria euskaraz.*

Lanek gutxienez 150 folioko luzera izango dute eta edozein gai eta narraziokoak izan daitezke.

— Saria: liburua argitaratzea, garaikurra eta 20.000 euro.

*Poesia gaztelaniaz.*

Gutxienez 800 bertsoko luzerako lanak, errimaren, neurrien eta gaiaren aldetik askatasun osoa dutenak.

— Saria: liburua argitaratzea, garaikurra eta 15.000 euro.

*Eleberria gaztelaniaz.*

Lanek gutxienez 150 folioko luzera izango dute eta edozein gai eta narraziokoak izan daitezke.

— Saria: liburua argitaratzea, garaikurra eta 20.000 euro.

Gipuzkoako egoiliarrentzat sari hauek PFEZ zergatik libre daude. Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako salbuespena.

Donostia, 2023ko urtarrilaren 10a.—Ander Aizpurua Susperregui, Kutxa Fundazioako zuzendari nagusia. (130)

concursante del mismo. Podrán ser enviados a terceros para realizar servicios de logística asociados al desarrollo del propio concurso.

15.

MODALIDADES Y PREMIOS

*Poesía en euskera.*

Para obras con libertad de rima, medida y temática y una extensión mínima de 800 versos.

— Premio: Edición del libro, Trofeo y 15.000 euros.

*Novela en euskera.*

La extensión mínima de los trabajos será de 150 folios con temática y narración libres.

— Premio: Edición del libro, Trofeo y 20.000 euros.

*Poesía en castellano.*

Para obras con libertad de rima, medida y temática y una extensión mínima de 800 versos.

— Premio: Edición del libro, Trofeo y 15.000 euros.

*Novela en castellano.*

La extensión mínima de los trabajos será de 150 folios con temática y narración libres.

— Premio: Edición del libro, Trofeo y 20.000 euros.

Premios exentos del I.R.P.F. para residentes en Gipuzkoa. Exención concedida por la Excma. Diputación Foral de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 10 de enero de 2023.—El director general de Kutxa Fundazioa, Ander Aizpurua Susperregui. (130)

EK\CV GAO-I-2023-00130